

baleike

Baleike

ko herri aldizkaria. 1. go zbkia. 1994ko Ekaina



150!

BALEIKE!

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Mikel Olasagasti

Joseba Alkorta

Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola, Iker G. Cobeaga

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzeko aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
talaia	6
ze berri	8
elkarrizketa	
unai manterola	9
erreportajea	
150. baleike	13
gure zumai zarra	
baxakarte (2)	23
kultura	
bertso astea	28
zine forum	29
agenda	30



unai manterola

"Gizarte hau hain laikoa izanik
eta kristautasuna baztertzen duela
ikusita, nik ez dakit zer egiten
duen gabonak ospatzen".

BALEIKERen bulego ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan 12etatik 13etara eta ostegunetan 18etatik 19etara

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA) dIruz lagundutakoa



Zumaiako Udala

15 URTE ESPETXEAN

Amnistiaren Aldeko Mugimendua

PATXI ARISTI Preso Politiko Zumaiarra, egun Topaseko espetxean dute giltzapaturik, Euskal Herritik 495 km-tara hain zuzen ere. Orain urte batzuk PSOEk, PNVrekin elkarlanean diseinaturiko espetxe politikak, senidentzat izugarritzko kostu ekonomikoa izateaz gain, preso berarentzat ere ezarritako zigorraren gaineko beste zigor bat gehiago suposatzen du.

Dispertsio politikaren ondorioetataz mintzo, ezin ahaztu bisitetara bidean errepideetan izandako istripu guztiak, ezta ere estatu espainol eta frantsesak zuzenduriko espetxe politikaren ondorioz galdutako

hainbat senide, lagun eta Euskal Preso Politiko.

Euskal Presoei ezartzen zaien espetxe politikak, oinarrizko eskubideen urraketa dakar berarekin; hala nola, ikasketa eskubideen ukazioa, bixiten murrizketa, biluzketak, jipoiak edo eta isolamendua bera ere. Patxi berak, hainbat urte daramatza isolamenduan, asteen 5 minutuko deiekin eta 40 minutuko bisitekin.

Urteetan zehar, Euskal Presoen izaera politikoa ukatua izan da. Euskal Presoek, Euskal Herriko gatazka politikaren ondorio izanik, izaera politikoa dute. Zentzu honetan estatu espainol

eta frantsesak izaera hau ukatu arren, Euskal Presoei ezartzen dieten tratamendua guztiz politikoa da. Gatazka-aren konponbide demokratikoa lortze bidean, ezinbestekoa da Euskal Presoen izaera politikoa onartzea, beraien oinarrizko eskubideak eta eskubide politikoak errespetatzea eta gatazka politikoren konponbidean parte hartze zuzena bermatua egotea.

Guzti hau posible izan dadin Euskal Presoak Euskal Herrian egon behar dute eta dagokien estatus politikoa onartua izan behar da.

ESTATUS POLITIKOA ORAIN!

dani



150 ALDIZ AMORRAZITA



x a 2

150 zenbaki egin, eta ez da mementorik egokiena amorrazioaz hitz egiteko. Agian ez. Baina, akaso bai. Izan ere, 12 urte igaro dira orduz geroztik, eta zipriztin batzuk kenduta, egoera beretsuan gaude. Eta horrek amorrarazi egiten nau. Orduan gaztetxoan nintzen, 12 urterekin oraindik bibote ile ziztrin batzuk

ere ez ezpain gainean. Baina ikusten nituen gazte batzuk beraien kabuz lana eginez, mendi irteerak, kontzertuak eta aldizkari bat martxan jarritz. Horrez gain, irakurtzen nuen nola proiektu handi-handi bat egiteko asmoa zutela herritik gertuen dagoen naturgunean: kirol portua. Batzuk alde eta besteak kontra. Honelaxe abiatu zen Baleike, edo honela ikusi nuen nik behintzat. Eraiki zuten herriaren bultzada izango omen zen kaia, eta ez dakit dozena bat lanpostu sortu dituen. Hori bai, eguzkitan kafea hartzeko terraza dotorea daukagu, besteen yateei begira egoteko, eta Paolera bidean goazela ikusten ditugunean inbidia pasatzeko. Gorostiagan egindako industriagunera bai joaten direa langileak, ekonomia altxatzera.

Urte hauetan guztietan, loreak ere jarri dituzte, erruz, bazter guztietan eta bakoitza bere ur txorrotadarekin. Eta bitartean, etxebizitza batzuetara sare publikoko urik ez zaie iritsi. Zumaia toki pribilegiatuan jarri dute. Horixe baietz. Horregatik eraiki dituzte luxuzko etxebizitzak

Amaiako plazan, eta babes ofizialekoak Aira Durex atzean. Bazterketa? Ez; ikurrin koloreko demokrazia. Etxe hutsak alokatzeko ez dute taxuzko programa eraginkorrik jarri; hori bai, Artadin hasi dira dagoeneko familia bakarreko etxeak egiten. Bada, hori, familia bakanentzat izango dira haiek ere. Bitartean, guk zalantzan jarraitu beharko dugu, ea irabazten dugunarekin Etxebidek zerrendatarako onartzen gaituen. Euskara sustatzeko sortu zen Baleike. 150 zenbaki geroago, komunikabide gisa egindako lana ezinbestekoa izan da, jendea euskarara erakarriz. Baina, normalizazioa goragoko mailetan ere erabakitzen da. Eta zer nahi duzue esatea, kolperik ez dutela jotzen iruditzen zait. Datu bat: 25 urte pasatu dira EAJ Eusko Jaurlaritzan dagoenetik. Beste datu batzuk: azken bi hilabeteetan, Osakidetzako bi mediku espezialistarekin egoteaz gain, ebakuntza gela batetik pasatu naiz, Ertzaintzan salaketa bat jarri dut eta dokumentuak berritzera Espainiako Gobernuaren ordezkartzara joan behar izan dut. Inon ere ez zekiten euskaraz!!! Zer gertatzen da? Baleikek 150 zenbaki hauek kaleratu dituen bitartean, beste batzuk Elebide, Agenda 21 eta gainerako publizitate kanpainekin burua jan nahi izan digute. Eta Euskadi super herri aurreratua dela sinetsarazi, euskarak aurrera egin duela, eta ongizate ia perfektuan bizi izan garela. Zenbat ari gelditu dira zintzilik aipatu gabe? Oxford, herriko gizarte eta kultur mugimendua, auzoekiko jarrera...

Baina ez, erabaki dut, 150 zenbaki kaleratu izana ez dela amorratzeko arrazoi. 24 urte izan eta bitzta erdia Baleikerekin pasatzea poztekoa dela, aurrera egitekoa, egoera aldatzen saiatzekoa. Beste 150 beharko al ditugu? Gutxiagorekin baietz lortu!!!

ilarzi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Emilio Perez
Elektrigala, telebista eta instalazio elektrikoan zaindaria eta konpainista

ADI

BASADI 2 B
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskainet.net

15 urte espetxean

Senide eta lagunak

Jada 15 urte pasa dira Patxi Aristi espetxeratu zutela. Denbora honetan guztian, hainbat eta hainbat bizipen eta ibilbide pasa ditugu, bai berak, baita ingurukoek (senide, lagunek...) ere, baina ez dira alferrikakoak izan, une latz eta pozgarriak bizitzeko aukera izan dugu eta: gehien maite ditugunon galerak eta kimu berriak sortzekoak ere bai.

Orain arte egin dugun ibilbidea hauxe da: atxiloketa (Angers, Frantzia, 1991-12-11), Fleuryko kartzela (Paris, 1991-12-14), estradizioa (1995-06-12), Carabanchel (Madril, 1995-06-12), Topas (Salamanca, 1996-04-10), Valdemoro (Madril, 1996-05-09), Caceres (1996-10-03), Martutene (Donostia, 1997-08-04). Gaur egun, 2003. urtetik, Topasen (Salamanca) dago, isolamendu modulu batean. Egoera honek bizimodua baldintzatu digu askotan: trasladoak, epaketak, txapeoak, zigorrak, bidaiak, gose grebak, osasun arazoak eta abar, horrek dakarren guztiarekin, desgastea eta anikilazioa. Baina ez gara horretan luzatuko eta bisita baten pasadizoak kontatuko dizkizuegu.

Igandea da, dena prest daukagu irteteko; prentsarekin, libururen batekin eta arropa pixka batekin osatu dugu paketea. Bidaia luzea dugu aurretik (469 km), bost bat ordukoa. Gasteizeraino lasai joan gara, baina Burgos aldera hartutakoan trafikoa izugarri areagotu da. Eguraldiak garrantzi handia du. Izan ere, ona eginez gero, trafiko handia egoten da eta txarra egiteak arriskua bikoiztu egiten du. Zumaiaik goizeko 04:30ean irten eta 09:30ean justu ailegatu gara. Leihatila zabalik dago, dokumentazioa aurkeztu eta paketea sartzeko. Oraingo honetan ez dute pegarik jarri, dena ondo doa. Beste preso-en senideak ere ari dira iristen. Arraza eta etnia guztietako jendea dago itzarongelan: beltzaranak, ijitoak, musulmanak eta gu, euskaldunak.

Hurrengo pausoa metal detektagailutik pasatzea izaten da. Intentsitate desberdinetakoak dauzkate. Batzuetan ez da



sumatzen; besteetan, berriz, pi eta pi, jo eta jo, hanka hutsik geratu arte.

–¿Lleva usted algo metálico? Monedas, llaves...

–...

–Quíteselo.

Okerrena da zenbat denbora galtzen den horretan, eta noski, atzeratuz gero, bisitara sartzeko ordua ez dute minutu bat bera ere luzatzen, nahiz eta beraien errua izan. Bisitak 40 minutu irauten du.

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

GASTUAK

Espetxea: Topas, Salamanca
KM: 469km

	HILABETEKOA	URTEKOA
BIDAIAK	718 euro	8.616 euro
MANUTENTZIOA	180 euro	2.160 euro
GUZTIRA	898 euro	10.776 euro

Komunikatzeko gunera pasa gara, hasiera goaz eta konturazterako hor daukazu berriro funtzionarioa bisita bukatu dela esateko, ti-tau. Kontatzeko ditugun guztiak eta askotan agurtzeko astirik eman gabe. Kabinak kristalezko leiho prezintatu batekin erdibituta daude, eta komunikazioak telefono bidez eta grabatuak izaten dira. Beraz, elkar ikusten dugu, baina aparatua behar bezala ez badabil, entzuteko zailtasunak izaten ditugu.

Bukatu da, eta aurpegietan tristura nabaritzen da. Orain beste aste oso bat pasatu behar dugu berriro elkar ikusteko, agurtzeko unea izaten da momentu gogorrenetako bat. Elkarri animoak emanez agurtzen gara.

Berriro buelta. Autoan sartu eta kontu handiagoz bueltatu beharko dugu, euri zaparrada ari du eta. Nekatuta iritsi gara, baina pozik. Gustura, oraingo honetan ere zorte izan dugulako. Bera ondo ikusi dugu eta gu etxean gara inongo arazorik gabe. Datorren astean ea zorte berbera dugun. Azken finean, Salamancara joatea beste leku batzuetara joatea baino erosoagoa da: hor daude Algeciras (1.234 km), Puerto (1.132 km), Paris (911 km), Huelva (1.001 km)...

Seguru beste 634 presoen senide eta lagunak ez direla irten beraien bisitetatik gure inpresio berarekin: gaixorik aurkitu dituztelako, edo kalean egon behar eta oraindik barruan daudelako, edo arazo burokratiko batengatik ezin izan dutelako ikusi, edo animo aldetik baxu zegoelako, edo bi egun lehenago jipoitu egin zutelako, edo autoa matxuratu eta bisitara ez direlako iritsi garaiz... Milaka arrazoi, honi guztiari konponbide bat aurkitzeko.

Bukatzeko, gelditzen zaigun kontu bakarra da egoera hau lehenbailehen bukatzeko esperantza ez galtzea eta ahalik eta duintasun handienarekin eramatea, elkartasunez, ematen diren injustiziak salatuz eta besarkada eta animoak emanez, bereziki Patxiri eta bera bezala daudenei. Eutsi!

TXALAPARTA

O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

RPS: 034/97 **Aita Mari 3.blokea**
Tel. 943 86 16 91

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

Tapaia

Antena

Erribera Kalea 20750 ZEMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73



MENDI - ONDO c.b.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO

taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Aspalditik datorren auzia, biziberrituta

Azken asteetan Jadarre auzoaren izena behin eta berriz entzun ahal izan da herrian zehar. Izan ere, auzoko biztanleak bizi duten egoeraz nazkatuta, beren beharren alde borrokatzea erabaki dute. Auzoa txukuntzea dute helburu, eta ez dirudi Udala horretarako aurkari izango dutenik.



Berrogei urte dira Jadarre auzoa sortu zenetik eta orduz geroztik auzokoek beraiek egin omen dituzte beharrezko lanak. Azken egun hauetan udaleko langileak aritu dira auzoko lursail bateko belarra mozten eta hori dela bide eztabaida berpiztu da berriro.

Zortzi urte ziren nonbait azkenekoz lursailak txukundu zirenetik, eta, ondorioz, urteetan pilatutako zakarra agertu da orain. Lan hau udalak egin beharko lukeela diote auzokideek, eta hori egiteko ere auzokideek joan behar izan dutenez udalera eskean, hori ere kexatzeko arrazoia dute.

Oiartzuna eta elkarretaratzeak

Egoera ikusita auzokoak batzen hasi dira, beharrak aztertu eta hauek publikoki jakinarazteko, besteak beste. Hainbat hedabideetan ere atera da berria joan den astean.

Hedabide horietan alkatea bera ere azaldu zen datorren urteetarako auzoan hainbat aldakuntza egiteko proiektua garatzen ari direla esanez. Aldi berean, datorren urterako aurrekontuan partida bat Jadarre auzoko azterketa topografikoa egitera bideratua dagoela dirudi.

Bide horretatik, auzokideak Hirigintza aurrean elkartu dira bi astez. Bertan "biziberritzea orain, utzikeriari stop" lema zeraman pankarta irakur zitekeen.

Neurri bateko akordioa

Azken elkarretaratzearen ondoren, alkatearekin hitz egiteko aukera izan zuten. Udaletik irten eta auzokoei zuzendu zitzairen. Eta dirudenez, guztien artean nolabaiteko akordioa lortu zuten elkarretaratzeak utzi eta mahai baten inguruan biltzeko.

Orain, Jadarreko auzokideak beraien artean batzekoak omen dira ordezkariak zein izango diren erabaki eta eskaerak biltzeko, udalarekin hitz egin aurretik. Oraindik ez da erabat argitu auzia, beraz, baina badirudi halako polemikaren ondoren zerbait konpontzeko bidean direla auzokideak eta udaleko ordezkariak.



Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
french
euskara
englantí
español
catalonián
suomi
basc
catalá
finnois
francés
anglés
catalán
francés
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

"Elizak ez du asmatu garai berrietara egokitzen"

unai manterola apaiza

Umetan zer izan nahi zuen galdetuta, "Apaiz behintzat ez"

erantzun du Unai Manterolak.

Gero, ordea, apaiz izateko bidea jarraitzea erabaki zuen.

ITSASO IBARRA

Donostiako Seminarioan Teologia ikasketak egin ondoren, Orioko eta Aiako apaiz izendatu dute. Pertsona baikorra eta umore onekoa dela dio eta bere lanean jendeari on egitea du helburu.

Zer dela eta erabaki zenuen apaiz izatea?

Kristau bezala, parrokian beti ibili naiz. Nire bizitzan kristau izatea ez da gauza bat gehiago, kristau izatea oso garrantzitsua da eta kristau izateko era bat izan daiteke besteei kristau izaten laguntzea.

Zein bide jarraitu duzu apaiz izatera heltzeko?

Donostiako seminarioan Teologiako sei urte ikasi behar izan ditut. Lehenengo bi urteetan bereziki filosofiako gaiak lantzen dira, psikologia ere bai. Beste lau urteetan gehienbat Biblia, Teologia, Etika...

Nolakoa da Seminarioko bizitza?

Lehen 400 seminaristatik gora egon zitezkeen seminarioan; orain, berriz, gutxi izatean, ikasketak beste era batera egiten dituzu eta alde horretatik hobeto. Baina, gutxi izatean elkarbizitzan talka gehiago daude.

Film bat egin berri dute monasterioko bizitza azalduz. Hitzik gabeko hiru orduko filma da. Seminarioan ere isiltasuna da nagusi?

Ez. Seminarioko bizitza unibertsitateko ikasle erresidentzia batean egon litekeena da. Baina ikasketak ezberdinak dira eta egunean pare bat aldiz otoitz egiteko biltzen gara.

Ez zara gazte eta apaiz izatea erabakitzen duen zumaiairak bakarra. Zergatik?

Hemengo parrokian aukera izan dugu Elizako bizitza ezagutzeko eta maitatzen ikasteko. Agian eragina izan dezake kristau elkarte honetan elkarte giro hori egoteak.





Gazteak apaiz bai, baina Elizan gazterik ez.

Alde batetik, beharbada Elizak ez duelako asmatu garai berrietara egokitzen. Bestetik, lehen, orain dela 30 urte, ateismoa "ni ez naiz kristaua" esatea asko pentsatu ondoren hartzen zen erabakia zen, eta gaur egun jendeak ez daki zergatik ez den kristaua. Nik esango nuke Zumaian, adibidez, edo beste herri askotan, gazteei elizara ez joateagatik kulpa botatzea oso erraza dela, baina 60 urtetik beherako zein joaten da Elizara? 40 eta 60 urte bitartean zein joaten da? Eta 60 urtetik gora zein ez da joaten? Gazteei errua botatzea da errazena.

Zer egin dezake Elizak gerturatzeko?

Elizak sufrimendu edo zalantzazko mundu batean badauka mezu bat, Jesusen mezua zoriontsu izateko modu bat dela esateko. Hori ahalik eta modu gardenenean erakustea agian erakargarria izan daiteke. Orain, horri, 2.000 urtean erantsi zaizkion mila eranskinekin, agian, estalita daukagu eta ez da ondo ikusten.

Agian, Elizak jarrera irekiagoa behar du. Jarrera irekiagoa behar du zenbait egoeraren aurrean, zalantzarik gabe. Eta jendeak ere jarrera irekiagoa behar du Elizaren aurrean, harreman bat sortu nahi baldin bada.

Apaizen perfila aldatzen ari al da?

Lehen parrokia batean hiru apaiz egoten ziren eta orain apaiz

bat hiru parrokiatan egoten da. Aldaketa hori izan da. Orain dela 60 urte, apaiz batek herriarengan izugarritzko eragina zuen eta kontzientziak dominatzeko gaitasuna, bereziki beldurraren bidez. Jendeak uste zuen salbamena apaizaren eskutik zetorrela. Orain konturatu gara salbamena Jainkoarengandik datorrela eta gu hori adierazteko gaudela. Hori aldatu da eta onerako, gainera.

"Lehen parrokia batean hiru apaiz egoten ziren eta orain apaiz bat hiru parrokiatan egoten da"

"Herri honetan ehuneko txiki bat da kristaua eta igandero bere fedea ospatzen duena, eta gero mundu guztia etortzen da bataiatzera, ezkontzera... Eskizofrenikoa da"

Apaizen artean ez da langabeziarik egongo.

Ez. Apaiz gutxiago daude, baina kristauak ere gutxiago dira. Demanda ere jaitsi da. Harrigarria da, herri batean jende talde txiki bat da kristaua, parrokiatan eta inplikatzeko dena. Baina, gero, ezkontzera, hileta batera edo bataio batera mundu guztia etortzen da. Orduan eskizofrenikoa ere bada. Herri honetan ehuneko txiki bat da kristaua eta igandero bere fedea ospatzen duena, eta gero mundu guztia etortzen da bataiatzera, ezkontzera... Jainkoari esker hori ere jaisten ari da. Nik usten dut zibilez ezkontza gehiago egingo balira askoz hobeto izango litzatekeela.

Orio eta Aiako apaiz izendatu zaituzte. Zein izango da zure lana?

Bi parrokien arduradun izango naiz. Orain elizbarrutiak antolaketa berri bat dauka eta parrokiak multzoka batzen ari dira. Hemen Getaria, Zumaia, Oikia, Aizarnazabal eta Artadi elkarrekin dauden bezala, guk ere Orio eta Aia elkarrekin dauzka

gu. Pastoral programa berdin baten inguruan eta elkarlanean bi parrokiak lantzen hasi behar dut, orain arteko gauzak zainduz eta ekintza berriak pentsatuz eta asmatuz.

Meza ematetik kanpo, zein da apaizaren lana?

Hasteko, eguneko pusketa bat meza emateari eta otoiitz egiteari ematen zaio. Ikusten dugu elkarte bati edo herri bati zerbitzua egiteko, beharrezkoa dela Jainkoarekin harreman hori zaintzea. Eguneko beste zati bat eskaintzen diot irakurtzeari eta ikasteari, karrera amaituta ez dira ikasketak amaitzen, beti jarraitu behar da ikasten. Beste tarte bat, Parrokian lanean dauden askorekin bilduz eta lagunduz, katekistekin, etab. Eta horrek du aurretik bilera prestatzea. Beste zati bat, gaixo dauden aitona-amonak bisitatuz. Niri askotan gertatzen zait, egunero, arratsalderako zerbait prestatzen ari naizela norbait etortzea arazoak kontatzera, eta jendeari entzutea ere gure lanaren zati bat da. Goizean goizetik gauera arte eguna beteta izaten dut.

Elkarrizketa batean zenioen gazteen inguruan zerbait egin nahi zenuela.

Bereziki gazteekin eta helduekin Eliza kojo dabil. Kristautasuna bizitza osoko prozesua dela esaten badugu, gure heziketa ezin dugu mugatu lehenengo mailatik seigarrenera eta sendotza aurreko bi urteetara. Zerbait integralagoa behar du. Hor ere lan egin beharko da.

Zumaiarra izanik, Orioko trainerua bedeinkatzea eskatuko balizute?

Bedeinkatu beharko nuke... Baina ni ez naiz traineruak edo banderak bedeinkatzearen aldekoa, ez Orion eta ez Zumaiian. Nik uste bedeinkatzea eta ona opa izatea, Jainkoaren ongi nahi hori agertzea bada, egur pusketa bati ezin zaiola hori agertu. Orain, Orioko arraunlariei Jaunaren bedeinkapena eta ongi

"Kapitalismoa eta kristautasuna ez datoz bat, eta kontsumoa eta kristautasuna ere ez"

nahia agertzeko prest nago. Nahiz eta gero zumaiarrak irabazitakoan poztu.

Zer iruditzen zaizu Benedicto XVI.ak musulmanen inguruan esandakoa?

Lehen esan zituenak ez ziren musulmanen aurkako hitzak. Esan nahi zuen erlijioa ezin dela inoiz erabili edo inposatu armen bidez, ez musulmana, ez katolikoa... Orain, aukeraturiko zita desegokia zen. Badaude mila zita katolikoek gaizki egindakoak aipatzen dituztenak eta hori erabiltzea agian ego-



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



kiagoa izango zen. Zita ez zen egokia, baina esan zuena ez zait iruditzen txarra zenik.

Zer iruditzen zaizu oraingo Aita Santua?

Lehengoa baino gehiago gustatzen zait. Nik uste dut isilago dagoela zenbait gauzaren aurrean eta nik uste dut ezin dela beti gauza guztien aurrean hitz egiten, komentatzen, eta gu gainetik gaudela erakusten ibili. Bai Elizan eta bai gizartean isilik egoten ikasiko bagenu, gauza handia irabaziko genuke denok. Bada, Espainiako presidente izandakoak, Manuel Azañak, esan zuen behin "Espainian ezer esateko ez daukaten guztiak isilduko balira, isiltasun handi bat sortuko litzateke". On egingo liguke.

Benedicto XVI.a Aita Santu egin zute-nean, esaten zen oso kontserbadorea zela.

Ezin daiteke pretenditu orain arte modu batera eraman den Elizak urtebetean sekulako eraldaketa egitea. Gauza batzuk aztertzen ari da, pertsona inteligentea da, kontserbadorea da, hori hala da. Bere garaian teologo bezala oso aurrerakoia zen eta gero itxi egin zela dirudi. Baina, aukera eman behar zaio.

Zumaian Benedicto ez, baina San Telmo eta San Pedro ditugu. Zein duzu gogoko?

Niri festetako San Telmo gehiago gustatzen zait. Ez naiz santuzalea, nik Jainkoari egiten diot otoitz. Santuak ondo daude eredu bezala, baina nik ez dut sinesten santutan, miraritarako eta.

Gabonak ere gertu ditugu. Lan handiko garaiak al dira zuentzat?

Beste egun batzuen modukoak izaten dira, meza ospatu, etab. Jendea topatzen duzunean, ez daudenekin gogoratzen direlako eta sentiberago egoten da, eta orduan gehiago entzun beharra izaten da.

Zer iruditzen zaizu Gabonen inguruan, Erregeak eta Olentzeroren bueltan, egiten den gastua?

Nik uste dut hori ez dela Jesusen jaiotzaren ondorio, bizi dugun gizarte kapitalistaren ondorio dela. Kapitalismoa eta kristautasuna ez datoz bat, eta kontsumoa eta kristautasuna ere ez. Nahiz eta gero neu naizen lehenengoa kontsumista izaten. Gazteeni edo zaharrenei ilusioa sortzea eta opari batzuen bidez familian maitatuak direla erakustea hori ondo dago. Orain, bereziki, gizarte hau hain laikoa izanik eta kristautasuna baztertzen duela ikusita, nik ez dakit zer egiten duen Gabonak ospatzen.

"Bai Elizan eta bai gizartean isilik egoten ikasiko bagenu, gauza handia irabaziko genuke denok"

"Gazteei elizara ez joateagatik errua botatzea oso erraza da, baina 60 urtetik beherako zein joaten da Elizara?"

Badirudi inork ez duela sinesten eta gero gehienek ospatzen dute.

Nik Ramadama errespetatzen dut, baina ez dut ospatzen, nik ez dut eta erlijio hori praktikatzen. Harrigarri samarra da, baina denok daukagu kontraesanak.

Urte berriari zer eskatzen diozu?

Denok eta bereziki politikariek egia esaten ikastea, eta isilik egotea. Hau da, isilik egotea eta hitz egiten denean egia esateko izan dadila.

Pertsonalki, apaiz bezala, nora heldu nahi duzu?

Bidean aurkitzen ditudan pertsoneri on egitea eta Jainkoak maite dituela agertzea da nire helburua. Ez dut gorago joateko asmorik.



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

ARROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

ORAIN 12 URTE...

...Ni Gazte Batzordean sartu berri izango nintzen. Izan ere, orduan, Institutua bukatzean, hango saltsak bukatu eta beste batzuetan sartzea zen kontua. Orduko Gazte Batzordeak (ez pentsa oraingo Asanbladan baino gutxiago ginenik izen hori genuelako...) gutxiena uste izango zuen **BALEIKE** honaino iritsiko zenik!!

Itziar Mora



12 urte gratuit zintzilik zegoen mutil haren portada hartatik... Makina bat albiste ekarri dizkigu Baleikek...

Batzuk herrikoak



Besteak ez hemengoak bakarrik...



Buruko minak asko emango zizkien ordudunik aritu diren herriko gazteei (eta dagoneko ez hain gazteei!), baina makina bat poz ere emango zituen, ezta?

Garai hartatik hona gauzak nola aldatu diren ikusteko gonbitea egiten dizuet. Horretarako tresna ezin hobea dugu orain; izan ere, hasiera haietatik **Baleike** ere modernizatu da eta! Sartu baleike.com helbideko **hemeroteka sailean** eta aspaldiko argazkiak eta iritziak ikusi ahal izango dituzue.

Orain ale txiki bat besterik ez: zertan aldatu da Zumaia dozena urteetan?



Bueno gauzak zer-bait hobetu dira, ezta? Orain ez dugu orduko kezka: "umeak non utzi?". Ala bai?

Eta Baleikeri buruz jarduteko zein hobeto, hamabi urteetan noizbait edo beti aritu izan direnak baino? Haietako batzuei galdetu diegu zer izan den Baleike beraiantzat. Eta hau izan da erantzuna...



Atzera begira

ITSASO IBARRA, MAITANE AGIRRE, IURE ALTZIBAR eta IZASKUN URBIETA

1994ko ekainean atera zen ez du gogoan azalean arranplako guatik zintzilik agertzen zen tipoa? Orduetik, hamabi urte igaro dira, hamaika istorio azaldu dira tartean eta jada 150. zenbakira iritsi da.

Gazte Batzordeak bigarren urtea betetzean erabaki zuen aldizkaria kaleratzea. Institutuko informatika gelan asteburuetan bildu eta Waliñok Pagemaker maketazio programari buruz emandako ikastaroarekin hasi ziren Iraixe Aizpurua, Esther Marti-



nez, Itziar Manzidor, Xabier Azkue, Igor Uranga eta Gorka Zabaleta bakoitzak bere orria idatzi eta maketatzten. Pentsa, 20 diskete behar izan zituzten lehen ale hura inprentara bidaltzeko.

Institutuko gela utzi eta 1995ean Forondan hartu zuen Baleikek bere lekua. Bertan hasi zen aldizkaria sendotzen. Xabier Azkuek hartu zuen koordinatzaile lana eta ardurak banatzen hasi ziren. Bertan, PC-tik MAC-era pasatu ziren. Disketeek ordea Baleikereren lanaren zati izaten jarraitu zuten. Behin, aldizkaria diskora pasatu ezinik ibilita, ordenagailu eta guzti joan behar izan zuten inprentara.

Dena, ordea, ez da lana izan. Garai hartako lantaldeak karaoke txapelketa bat ere

irabazi zuen. Aldizkariaren urteurrena ospatzeko, afaria egin eta Estazioko jaietan izan zen. Karaokean parte hartzeko izena eman eta La Puerta de Alcala abestiarekin Estazioko jaietako karaoke txapelketa Baleikeko lantaldeak irabazi zuen!

2000. urteko irailean askatasuna eta malgutasuna irabazi zuen aldizkariak gaur egun duen lokalera igaroz. Hilabetekari izatetik, hamabostekari izatera igaro zen eta lantaldea ere aldatu zen. 100. zenbakira iristearekin agur esateko unea iritsi zen. Pare bat hilabetera, ordea, berriz agertu zen, formatu txikiarekin eta lantalde berriarekin. Ordutik beste 50 zenbaki ere egin ditugu eta orain 150. zenbakia duzu esku artean.



Baleikereren partaide taldeko bat.

Baleikereren lehenengo zenbakian, Arbustaingo garbiaren irudi hauxe erabili zuten.



CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropea garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330

Zer izan da Baleike zuentzat?

Aitor Manterola: Etena egon ondorengoak gara gu. 2002an hasita pare bat urte egon ginen. Hasieran kolaborazioren bat edo ipuinen bat egiten nuen. Hemen sartzea ustekabekoa izan zen, izan ere, bile-rak egitearen ondorioz hasi ginen batzen berriro aldizkaria ateratzeko. Garai hartan idazterakoan herriko hizkera mantentzen saiatu ginen. Aldizkariak herriari kolorea ematen dio; herriak ez dauka kolore bakarra eta kolore denek agertu behar

dute. Zumaiak munduko herri guztiek bezala mila istorio eta mila albiste ditu, batzuk onak eta besteak txarrak eta hori azaltzeko ezinbesteko tresna izan da eta izango da Baleike. Hala ere kultur eragile bat behar du atzetik, asko oinarritzen baita aldizkarian. Niretzako aberasgarria izan zen hemen lan egitea, pozgarria. Ikasteko aukera ere eskaini zidan, prentsa idatzian hasteko aukera. Gainera jendea ezagutzen da.

Argi eta Roberto.



Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Zer izan da Baleike zuentzat?

Ibon Manterola: Hasieran beldurra genuen zerbait berriaren aurrean geundelako eta ez genekielako nondik jo. Gogoratzen dut hasieran euskararen gaiari eman geniola indarra.

Baleike beti izango da herriko jendeak idazteko txokoa. Kazetariak idazten dute baina horietaz gain garrantzitsuak dira kolaboratzaileen lanak. Azken batean, herriko jendearen gertaerak kontatzeko lekua da. Gainera, euskaraz idatzi eta irakurtzeko

aukera ematen duen hedabide bat izatea gauza handia da.

Zumaian indar handia dago toki askotan baina bakoitzak bere aldetik ez du boteririk. Baleikek betidanik lortu du jendearen indarra aldizkari batean bideratzea. Beste formatu bat izan zitekeen baina aldizkari bat da. Herriko pultsua hartzen du eta hori ongi bideratzen asmatu behar da. Azkenean indarrak koordinatzen asmatu behar da. Esaten da etenaren

(...)



Aitor, Haize eta Eneko.



Lure, Maitane,
Joseba eta
Izaskun.



Barrioa Kalea 10 Barrio, 20700 Donostia. Tel. 943 14 80 07 ekin@ekin.com www.ekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 943 861412



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Zer izan da Baleike zuentzat?

ostean aldizkariak ukitu serioagoa hartu zuela.

Bestakde, ariketa aberasgarria da norberak idaztea, norberaren izena jarriz. Aldi berean, neurri batean pertsonaia publiko bihurtzen zara.

Iosu Waliño: Baleike sortu genuenean ez zegoen Zumaiari buruzko informazioa jasotzeko biderik Diario Vasco-ko kronika baino. Baleikeren jaiotzarekin askatasuna irabazi genuen zumaiarrok: Zumaia eta zumaiarroi buruzko informazioa etxe guztietan

eta euskaraz jasotzeaz gain, edozein herritarrek askatasun osoz iritzia emateko plaza zabala sortu genuen. Hori da Baleike niretzat, askatasunez Zumaiari buruzko informazioa eman eta jasotzeko bide bat.

Gorka Zabaleta: Baleike.com-ek eskaintzen duen hemerotekara jo dut, 1994ko ekainean argitaratu genuen lehen zenbakiaren bila. Pello Etxabe tabernariari egindako elkarrizketarekin egin dut topo.



Ibon eta Aitor.



Imanol.



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

Zer izan da Baleike zuentzat?

"Gaurko gazteriak beste inizatiba bat zeukak". Hala zioen berak. Eta hainbat oroitzapen eta sentimendu etorri zaizkit gogora: ez genekien oso ondo zertan ari ginen, baina sekulako ilusioa genuen; egiten ari ginena garrantzitsua zela sentitzen genuelako, sines-ten genuelako. Garaipena zen zenbaki bakoitza. Eta taldea. Lagun talde bat ginen, koadrila bat –Baleike Txoua, hura bai erokeria zoragarria!–. Gero, denbo-
raren poderioz, zahartu egin gara. Eta aldizkaria

aldatu egin da. Kakaume haien txispa galdu du, halabeharrez, baina sendotu egin da, egonkortu. Zumaiaiko paisaiaren parte bihurtu da, hileroko ogia. Hamabi urte eta erdi joan baitira. Beno, ez dira joan, Baleikek jaso baititu, 150 zenbakitan. Herriaren hemeroteka osatzen jarrai dezala, zumaia-
rrok eskertuko diogu eta.

Xabier Azkue: Hasieran AMETS BAT zen, talde baten ilusioari eta lanari esker gauzatu ahal izen

(...)



Juan Luis,
Aitor eta
Itziar.



Antxoka.



parabidun kamioia / baskulagaria
garabia: 15m.-1u.

GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 53 / 189 / 655 / 06 55 /
Inuitari, 4 2A (Zumaia) • Aitzpilagorta, 16 B (Mondram)



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1

Zer izan da Baleike zuentzat?

zena. Geroxeago LANA bihurtu zen gehiago, bestelako lan batzuekin tartekatu behar izaten nuena. Aurrerago, berriz, KEZKA-ITURRI bilakatu zen gehienbat, etorkizun argirik gabe aurrera egin eta erabaki batzuk hartu beharra egokitu izan denean. Hala ere, guztiaren gainetik ESKOLA moduko bat izan da niretzat, euskararen normalizazioa indartuz lanerako eta oro har bizitzarako lezioa asko eman dizkidana.

Esther Martinez: Baleike sortu genuenean ez zegoen Zumaiari buruzko informazioa jasotzeko biderik Diario Vasco-ko kronika baino. Baleikereren jaiotzarekin askatasuna irabazi genuen zumaiarrok: Zumaia eta zumaiarroi buruzko informazioa etxe guztietan eta euskaraz jasotzeaz gain, edozein herritarrek askatasun osoz iritzia emateko plaza zabala sortu genuen. Hori da Baleike niretzat, askatasunez Zumaiari buruzko informazioa eman eta jasotzeko bide bat.



Juan Luis
eta
Abelin.



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

Txoko honetan, zozketa bidez sariak ematen ditugu hilero.

Baina, erne! Parte hartzeko bazkide izan behar duzue!!

Idatzi elkartea@baleike.com helbidera, zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz. Bestela, deitu telefonoz (943 86 15 45) edo utzi zuen mezua BALEIKERen buzoian.

**Mezuak bidaltzeko azken eguna:
urtarrilaren 5a.**

Karidadeko Benta
taldearen disko
berria!

Irabazleen izenak web orrian eta
aldizkarian azalduko dira.

Zorte on!!



- Arrainak eta haragiak
aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, Txapartegik emandako tarta eder bat zozketatuko dugu. On egin!

Zumaia eta inguruak ez ditugu behar bezala ezagutzen, altxor txikien jabe gara eta askotan ez gara konturatu ere egiten...

Txoko honek lagunduko digu gure txokoak ezagutzen.



GALDERA:

Lehengoan Urola ibaian gora joan eta Bedua aldean ibili ginen. Gaurkoan, Beduatik behera etorriko gara. Basadizarretan lehorrera jaitsiko gara, gaur egun araztegi edo depuradora dagoen horren ondoan. Bere garaian, Urola tren hortik jaisten zen Estaziotik ibaiertzera, buelta hartuta, eta ordekan, ertz-ertzetik, ederki etortzen zen gaur egun anbulatorioa dagoen horretara, porlan bila. "Basadizar" izenak dioen bezala, sail hauek guztiak lehen basadiak ziren, ibaiari jandako terrenoak, erriberak, eta gaur egun Zumaiako industrialde nagusietako bat da. Urola ibaiaren ondo--ondoan edo gainean, hainbat eraikin interesgarri dauzkagu. Horietako baten zatia daukazue argazkian.

Haxe gaurko galdera: zer da edo nongoa da argazkian azaltzen dena?

Arrasto bat: hau "handia" da, eta Zumaian badago beste bat "txikia" izena duena.

Erantzunak elkartea@baleike.comera bidal, Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behea) edo 943 86 15 45 telefonoan eman urtarilaren 5a baino lehen. Erantzunekin batera izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazi.

**Aurreko zenbakiko erantzuna:
Ibañarrietako harrobia**

Irabazlea: Igone Balenciaga

**Parte hartu eta
zorte on!!**



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



**Mota guztietako
altzariak**

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tallerra: 943 860914
denda: 943 862385

jexux iruretagoiena lafunte.

(2)

“ Baxakarte ”

ABELIN LINAZISORO

Eta zuen amaren istorio hori ez al dakik zehatz-mehatz?

Ez. Nik osaba-izekok kontatutakua zekiat. Gure ama nik hamaika urte nittula hil huan-eta. Pentsa zak, nei izeko Xalbadorak esan zian gure ama punteri onekoa zala. Ahizpa danak kabreatuta eta gure amak, tira! Eta gure amak igartzen omen zian noiz bota zun beltza.(1) Jotzeakoan gure amak mingaina ateratzen omen zin, eta, ahizpak: Anttoni, bota al den?, eta amak: Bai!, bota diñat, ba! Berriro fusila hartu, tiro batekoa izango huan, nonbait eta tiroa berriro. Gure amak mingaina ateratzen bazun, seguru beltza jo zula, esaten zien.

Istori hori zehatz-mehatz jakingo nitek, ba.

Ba, oain jai zeok ba. Haren senide bat bizi dek oaindikan, baino hark ez dik hortaz ezer hitz egingo. Gerran gure amakin ibili huan eta larogeita hamar



urtetik gora izango dittik. Ondo zeok, hizketan ona dek, baina gerra kon-tuak?, jefu!, ez dik nahiko ez.

Baxakartetik bialdutako lau senideak Zumaiatik bialdutako sei kamioi horietan izango ziren, ezta? Ala, aparte bialdu al zituzten?

Ez, aparte ez. Zumaiko zerrendan azal-tzen dittuk. Hemen, Alondegí Zahar-rean egin zan erakusketan gure ama ere azaltzen huan bialdutako besteekin batera. Eta esaten diat, nik haiei aituta zeukat, Bizkaian zebiltzala bonbarde-ak hasi eta ez dakit nongo tunelian sar-tuta eon ziala, baina haiek frentian eon ziala seguru neok. Nik uste diat haiek nora joanik ez eta, nun da gure frentia?, galdetu eta alde hartara jungo ziala. Nola bukatu zuten tiroka ez zekiat eta ezta zenbat denboran egon ziren armak eskuetan ere. Gure amak 22-23 urte izango zitian, sasoi galanta hark orduan, baserritik indarrez aterata, bel-tzei⁽¹⁾ tiro ingo ez zian, ba, hark!

(1) Beltza hitza karlista gerrateetatik etor daiteke. Euskal foruen alde egin zutenak karlistak ziren eta espainolekin bat eginez foruen kontra egin zutenak historian liberal izenez ezagutuak izan arren, foruen alde egin zutenentzako "beltzak" ziren. Beste ezizena "peseteroak" zuten. Hortik etor daiteke, ziur aski, abertzaleen kontrakoek beltzak deitzea.

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^o Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAI
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
analkularitza teknikoak.
Balorazioak

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARROZTEGIA

Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Hamalau urterekin entzuten hituen kontu horiek. Lanean ere hamalau urterekin hasiko hintzen, ezta?

Bai. Xoxokuan. Orduan, badakik, pintxe moduan, esmerilakin, taladroakin... Ofizioa ikasteko intentzio horrekin behintzat. Gero ajustadore ikasian. Baina lehenagotikan esmerila zaharra pasa fundiziotik ertendako piezari, hondar asko botatzen zian eta muturra nahiko beltzakin juten niñun etxera. Eta hura tailer txikia zanez, lanian ajustadorera iristeko aukera behar dek, gure osaba batek esan zian: Hik hor ez dek ezer ikasiko, eta, handik pixkaterra Yereginera aldatu niñuen, Xoxokuan urte t'erdia egin ondoren. Yereginean, hoixe, soldau jun arte.

Hamalau urterekin tailerlean lanean hasi arren, baserrian ere lagundu egin beharko huen, ezta?

Lagundu? Beharko. Pentsa ezak, orduan Yereginetik Baxakartera oinez juten giñuan, tren-bidetik barruna. Hamabitan erten eta ordu bata t'erditako atzera lanera jun behar eta hamarretik zortzi aldiz, udaberrian behintzat, etxean sartu baino lehen sega han eoten zan bere sega-potuakin atean zai. Han etxe onduan gurdika bat belar



ebaki, haundia ez, jatordu baterako-edo, gero presaka babarrun batzuk irentsi eta korrika lanera. Hori eguerdian eta iluntzean, jo, etengabe lanean.

Ze ordutan irteten zenuten lanetik?

Sei t'erditan. Artean tarte galanta. Udaberrian eta batez ere udan badakik ze iluntze dagon.

Pentsa zak zenbateraino

aprobetxatu giñuzen. Lanetik irten, etxera jun, merienda legia ein eta segituan, ba, artajorra garaia bazan, bestiekin batera artajorran. Oaintxe eguzkia jaisten hasten zanean, iluntzea baino lehen, sega hartu eta belarra ebatzera. Ganauentzako jatekoa eittera eta hau nahikoa ez eta lehenagotikan atxurrian ein behar, bestela denbora alperrik galtzea zala-eta. Akordatzen nauk, ilunpetan lanean, Samielen hamaikak tangatanga jotzen eta ni zelaian ikusi ere ein be belarra biltzen, astoa edo gurdia kargatzeko.

Artajorran nola egiten da?

Atxurrakin. Arto artian daon belarra ebaki eiten dek eta bidebatez artua lurrez bete. Artua zutik eon dedin lurrakin bete ein behar dek, ez okertzeko. Artua badakik kainabera bezelakoa iza-

“Bizkaian zebiltzala bonbardeoak hasi eta ez dakit nongo tunelian sartuta eon ziala, baina haiek frentian eon ziala seguru neok.”

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

Ertz
informatika

- Portatillak eta ordenagailuak
- Laguntza teknikoak
- Tresna digitalak

Eusebio Gurrubxaga, 6
tel. 943143395
ertz@facinet.es

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

ten dala, ba, juntura lurraz estaltzen badek, zuzterrak ertetzen zio, orduan behe aldeko junturak lurraz estali eta asko gogortzen dek, lotuta baleo bezela. Erriberetan eta hor leku zikin samarrak zaudek. Barrabas belarrak, belar txarrrak, derrepente ertetzen duna askotan. Soua garbitu eta handik zortzi bat egunera berriro zikinduta azaltzen zana, ba, orduan garbitu ein behar. Atxurra asko astintzen huan orduan. Lurra konpontzeko ez zeoan oango tresnik eta segun ze girotan harrapatzen huan lurra, ba, beharbada zokor asko izaten huan eta areak ez dik zokorrik puskatzen. Orduan areakin zokorra gainera atera eta alperrak zapaldu eiten zian, puskatu gabeko zokorra berriro sartu eta orduan mazoakin ibili behar izaten huan zokorra jotzen. Zokor-mazo izena hortik zetorrek. Zokor-mazoa egur biribil antzekoa huan, hari kertena jarri eta zirti-zarta lurra puskatzen hauts eiteko. Lur zokorra txikitzeko.

Baxakarteko lanez gain erriberetan-eta lanean jardundakoa haiz, ezta? Luakietan, alegia.

Bai, bai. Luakietan baratza bakoitzak berea zian. Han ez huan auzo lanik izaten. Baina guk soua Egurkoneko horretan ginien. Lur hori oso samurra dek, hondarra moukoa, baina bazeok beste lur egoskorrago, baino aberatso, eta hor tomatia, eta holakoa eiten ginien eta Azpeitira saltzera eraman. Txanpon batzuk ateratzeko kristonak jo behar, hi!

“Tailerretik etxean sartu baino lehen sega han eoten zan bere sega-potuakin atean zai. Gurdika bat belar ebaki, presaka babarrun batzuk irentsi eta korrika lanera.”

“Zokor-mazoa egur biribil antzekoa huan, hari kertena jarri eta zirti-zarta lur zokorra puskatzera. Zokor-mazo izena hortik zetorrek.”

Urolan joango zineten, noski.

Bai, Urolan. Azokako egunian astian behin. Eibarra ere jute giñuan. Karga haundia ez bazan behintzat. Bi edo hiru otar ganauakin Zumaiko estazio-
ra eaman, han fakturatu eta handik aurrera estazioko mutilak eoten hittuan andenetan otarrak kargatu, hustu-eta eiteko. Azpeitian ere beaiek eamaten zien plazara. Emakumia Azpeitira hiru astalotarrekin juten bazan, haiek ezin zien bizkarrean eaman, otar bakoitza berrogei bat kilo gutxienez izate huan-eta.

Astalotarrak asto gainean erabiltzen zirenak eta kapalotarra zeri deitzen zitzaion?

Astalotarrak luziak hittuan, alkarri bi lokarriekin lotu eta astuaren alde banatan juten hittuan eta kapalotarra txikia dek. Hori bidegintzan-eta erabiltzen huan. Baserrietan gutxi. Kamiñeruak erabiltzen zutena dek. Bestea lepaotarra dek. Handiagoa, arbitan-eta ibiltzekoa. Arbiaz bete eta bizkarrean eamateko.

Garia egiten al zenuten?

Bai. Ez zekiat zein urtetan galdu zan, baina garia ere eiten ginien. Garia itaia-kin ebakitzen huan. Gero etorri huan sega.

Igitaiaz ibiltzen zinatenean ez al zegoen sega, ba?

Ez. Batek, ondorioz, bestea ekarri zian. Eta zaharrek sega ez zien nahi

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA
ITURGINTZA S.L.**
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

gainera! Gari asko alperrik galtzen zala-eta. Segaz, ebaki, askoz azkarrago eiten huan, baina eskuz eiten zunak itaiaz ebaki eta lurrian gabikoa einda uzten zian. Gabikoa bi eskuka bete xortari deitzen zaiok, gero atzetik zetorrenak hiru edo lau lasto hartu, buelta eman eta lotu eiten zian.

Txukun-



txukun. Gero, sega etorri zanean, badakik, segak kertenetik lotuta beste bi hortza luze eukitzen zian. Tente dagon garia segaz azpitik ebaki ahala bi hortz hoiek etzaten laguntzen zio. Hala ere haize pixkat ibili ezkeo txarra dek eta euri txikia, berriz, txarrena. Garia haundia dagonian, euri txikiak aldegiten ez dunez, garia pixuarekin bota eiten dik. Bueno, ba, segakin garia gehixo nahasten dek. Galburu batzuk aurre-

raka egon beharrean, ipurdi alderaka, aldrebes geratu eta zaharrak ernegatu eiten hittuan. Jode!, honenbeste gari galtzen dek!, eta ez dakit zer eta bada- kit zer. Eta hor gure artean borroka pixkat izaten huan. Garia jotzen maki- nakin ezagutu nian, tubua- kin lastoa bere lekuraino eamaten, baina azkenean gu beti segakin ibili giñuan.

Garia jotzen al zenu- ten?

Bai. Garia txanketian eskuz jotzen giñuan. Gari-meta etxe ingu- ruan einda eoten huan eta egualdi ona zetorrela jakiten zan egunian, goizian goiz hartu eta garia bueltan-bueltan

zabaldu eiten huan, eguzkitan ondo ihartzeko. Gero, eguz- kiakin kris-kras jartzen zanean, larraña preparatzen huan. Larraña garia jotze- ko lekuak izena dik. Hortik zetorrek Larrañaga. Lur lehor gainian dana garbi-garbi ein, harrizko losa zapal bat erdi-erdian jartzen huan eta hiru edo lau lagunen artian garia losaren kontra jotzen huan. Eskuan gabikoa hartu eta zirti-zarta harrien kontra kristonak ema- ten segi. Eta danak lanian. Batzuk garia ekartzen, besteak jotzen. Garia alde batera eta lastoa bestea bota eta batzuk

garia jasotzen eta besteak lastoa sapaira eamaten.

Eta makinak?

Geroxeago matxaka deitzen giñun makina zazar batzuk azaldu hittuan hemen. Zumaian Agerre haundia ibil- tzen huan garia jotzen. Bere automo- bil zaharrari gurdia erantsi eta gainian motor zahar bat zula baserriz baserri ibiltzen huan. Beste gari-jotzailea Oikiko Lore huan. Bere motor zaharra kristonak einda arrankatu ezinik ibil- tzen huan. Bujiak kendu, lastoakin sua ein, bujiak berotu, berriro jarri... Beti berdin. Hark arrankeko motorrik ez zian. Matxaka eta motorren artian korrea bat eukitzen zian, korrea tiraka jarri, soka-tiran bezela, eta, pu, pu, pu, arrankatzen zunian, balekua. Gero beste makina bat etorri huan, hark garia jo, bai, baina ez zian oso ondo garbitzen eta hobeto garbitzeko beste torno batek ein behar izaten zian. Gero, lastoa zeharo txikituta, tubo batekin sapaira jarri eta bete eiten zian. Sapaian atzetik hasi eta las- toz betetzen zihoan bezela, tubua aurreaka ekarriz. Hura kriston inben- tua izan huan. Azpeitiko Antxetak loaldi ederrak eiten zitian makina pon-pon martxan jartzeakin batera. Makina lanian eta hura arbola-ipur- dian exeri eta lo seko. Garia jotzen gau eta egun jardutzen giñuan auzo- lanean. Jende asko behar izaten huan eta auzolanean jardun behar.

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051
S DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiaiko plaza, 2
Tel. 943 143278

Maitte
ileapaindegia

Konta ezak nola zen hori.

Ba, makinak bi tanbor zitian. Hura bueltaka zebilela, gabikoa alde batetik sartzen huan eta eskuaz eutsi ein behar izaten huan, atzea lastua bota eiten zian-eta. Gabikoa, galburua bere lastoakin pila bat eginda dek. Bi ilara lagun jartzen hittuan, batek gabikoa sartu eta besteak atera, buelta eman eta berriro sartu. Jendiak, ba, gabikoa ekarri, mahaian jarri, besteak mahatik jaso eta makinan ari ziane eskura eman... Gero lasto hura jaso ein behar izaten huan, eta lastekoia luzia bazan, ba, hura sapaian tolostatu ein behar izaten huan. Bat edo bi hantxe sapaian tolostatzen, beste bi haiei lastekoia eskura ematen, beste batzuk kanpotik sapaia barrura sartzen, besteak gari aliak jasotzen... Auzolanian. Normalian gu Artadi gehiena ibiltzen giñuan alkarrekin, Santixokuak barne. Gau eta egun makina berria etorri zan arte. Txandatur eiten giñuan lana. Eguna zabaltzen zanean batzuk lota eta besteak lanea eta hurrengoan aldeantiz, eta horrela.

Auzolana gariarekin bakarrik egite al zen?, eta, garia baserri denak egiten al zuten?

Bai, bai. Auzolana gariakin eta garia etxe guztietan eiten huan. Garia hel-tzen zanean, ebaki, eta euri bildurra izan ezkeo souan bertan metatxoak eiten hittuan. Gero, dana ebakitzean, garia hartu, etxe ingurura eaman eta

*“Azpeitiko antxetak
loaldi ederrak eiten
zitian makina pon-pon
martxan jartzearekin
batera. Makina lanian
eta hura
arbola-ipurdian exeri
eta lo seko.”*

*“Jende jatorra huan,
meriendatxoa ardo
tragoaz ematen
zigutean. Zenbat da,
galdetu, hainbeste,
erantzun eta txanpon
batzuk etxerako. Ederra
izaten huan hura. Sou
bazterrean exeri,
meriendatu, kobratu
eta etxera.”*

orduan zuhatza haundiagoak eiten hittuan. Euria hasi ezkeo gainera zakua bota eta hola. Gari garaian baserri batetik hasten hintzan eta bai-larako baserri danak bukatu arte.

Lehen ere galdetu diat eta ez didak erantzun, Zubi Txikitik estazioraino-ko erribera horietan ere lan egindako haiz, ezta?

Bueno, hor ez zegok erriberarik ni ibili gabekoikan. Gurian idi pare dezentea zeoan eta kaletar askok bakoitzak erriberatxo edo lur puska bana zien. Babarruna, artua eta horrelakoa eiten zien, baina lurra ereiteko prestatu ein behar. Ni Yereginean lanean hasita niñun eta aittitta nerena etortzen huan, Zubi Txikira, idiekin eta goldiak, ordurako auskalo zenbat erriberetan lana hartuta eongo zan, eta, biok bokadilotxoa jan, golde saioa ederra ein eta geure dirutxoa kobratu eta etxera juten giñuan. Baratza haiek kale-baserrikoak hittuan, haiek ez zien animaliarik, eta lurra guk goldatu behar. Lana bukatzean, egun bat edo bi, lurra ereiten zuna etortzen huan, jende jatorra huan, meriendatxoa ardo tragoaz ematen zigutean, zenbat da, galdetu, hainbeste, erantzun eta txanpon batzuk etxerako. Ederra izaten huan hura. Sou bazterrean bertan exeri, meriendatu, kobratu eta etxera.

(jarraituko du)

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



icardo J. Azcue Yeregui
Abokatu • Aseguruak
Finke Administrazioak

txomin aguirre 4. behea
20.750 zumaia (giuzkoa) Tel. 943 862651
E-mail: rjzcue@euskalnet.net Fax. 943 862746

FARMA ZUMAIA
PARAFARMASIA

851019801


PRODUKTUAK

- Ume eta 1 leumenzat, DIMENKAK, Kozmetikak, hanka eta okutu zantzuak

ZERRITZU BEREZIAK

- Oseta, Nantropatik, Injekzioak, Mendi koka, Mikiapok, Urtugintzak, Kintorentzulo, Laxatibak, Induragorri, Antibiotikoen, Duruko oinon, Zirkulazio arazoan... kontrakoak). Akupuntura: onartzean eta onartok 1984

BASADI KALEA, 3 - BEHEA • ZUMAIA



Unai Iturriaga
Maialen Lujanbio

Gabonetako bertso-astea 2006

ZUMAIAKO BERTSO ESKOLA

Azken urteotako ohiturari jarraituz, aurtengo Gabonetarako ere bertso-saio batzuk antolatu ditu Bertso Eskolak.

BERTSO-POTEOA, trikitilariekin

Abenduak 29, ostirala. Erribera kalean, iluntzeko 7etan Tomas tabernan hasita.

Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio

Bi bertsolari handi, indarra hartu duen saiorako

Lehenbiziko urteetan larunbatetan izan zen poteoa eta iaz beldur pixka batekin pasatu genuen ostiralera, baina jendeak bikain erantzun zuela ikusita, aurtengoan ere ostiralean antolatzea animatu gara. Zumaian behin baino gehiagotan izan dira Unai eta Maialen, baina inoiz ez poteoan. Ea Gabonetako giroa berotzen asmatzen duten.

BERTSOLARI GAZTEEN SAIOA

Abenduaren 30ean, gaueko 10etan, Aita Mari zineman Oihana Bartra

Arrate Illaro

Ander Lizarralde

Aitor Urbieto

Iban Urdangarin

Maialen Velarde

Gai-jartzaileak eta aurkezleak: Maddi Gallastegi eta Markel Peñalba
Amaieran IX. bertsopaper-lehiaketako sariak banatuko dira.

Gazteen sustapenerako plaza polita

Bertso eskolan oso garrantzitsua iruditzen zaigu bertsolari gazteei eta hasiberriei plaza edo saio duinak eskaintzea eta helburu horixe du Gabonetan antolatu ohi dugun saioak: eskolarteko txapelketan nabarmendu diren gazteak, gazte-sariketa batzuetako irabazleak, ingurukoak eta ahal bada herrikoren bat ere bai, noski. Iaz Unai Gijarrok parte hartu zuen eta aurtun Maialen Velarde izango da gure ordezkaria, Zumaia txapelketa irabazi zuena, hain zuzen.

GABONETAKO BERTSOPAPER-LEHIAKETA

Joanito Dorronsoro IX. saria

Gaia: KIROLA ZUMAIAN

Epea: abenduaren 27a

Oinarriak osorik Foronda kultur etxean eta www.baleike.com/johanesena web gunean.

Urteroko parte-hartzaileak eta tartekako sorpresak

Zumaiarekin lotutako gai bat proposatu eta herriko bertsolari eta zaleei gonbidapena egiten zaie 6-10 bertso jar ditzaten. Gehienak ohiko parte-hartzaileak izan ohi dira, baina tarteka izaten dira berriak ere. Izan ere, jende asko dago Zumaian bertso batzuk idazteko gai dena. Zergatik ez zara animatzen? Gaia alderdi askotatik hartzeko aukera dago: kirolari ospetsuak, Zumaia taldeak, kiroldegia jendez eta ikastaroz gainezka...



Albaitaria
Itzi Gormendia

Basodi 7 behean - 20750 Zumaia - Tel.: 943 143 310

Email: vet@basodivet.com
Web orria: www.basodivet.com

Orduak: 11-13 / Arratsalde: 16-18:30 / Adierazten gaituen eta garatzen dituen.
Lentokariak: 043 725 767 / Duzetako partekatze

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

fidatzeko baimen guztiak



ZINE FORUM

Abenduak 14an, gaueko 10:15ean

Sud express

Zuzendaria: Chema de la Peña eta Gabriel Velázquez

Aktoreak: Gerald Morales, Tino Guimaraes



Chema de la Peña zuzendari bitxia da espainiar zinegintzan. Pelikula komer-tzialak egiten dituenean (Shacky Carmine, Isi/Disi) emaitzak kaxkarrak izaten dira. Zine pertsonalagoa egiten duenean, ordea, bere benetako maila ematen du. Azken talde honetan kokatzen dira 2002ko De Salamanca a ninguna parte dokumentala eta iazko Zinemaldian aurkeztu zen Sud-Express hau.

Bizitzen bidegurutzeta da Sud-Express. Sei pertsona arruntaren bizitzak Paristik Lisboarako bidea egiten duen trenean gurutzatuko dira. Protagonisten bitartez, Europak pairatzen duen une kritikoa kontatzen da, pertsonaia beraien parekotasunak eta desberdintasunak aztertuz.

Pertsonaien solasaldiek eta isiltasunek sinesgarritasuna dute eta horretan zer ikusi handia du aurpegi ezezagunek osatutako aktore taldeak. Eskertzekoa da, baita ere, bide luze horretan entzun daitezkeen edo pertsonaiek hitz egiten dituzten hizkuntzak (frantsesa, espainiera, portugesa, arabiera, baita euskara ere) errespetatu izana. Oraindik egiazkoagoa bihurtzen du filma.

Bizitzaz betetako pelikula errodatu du De la Peña-Velazquez bikoteak; bizitzaz betea, izan ere, zuzendariarentzat "Trena beti izan da hori: mugitzen diren emozioak".

Abenduak 28, gaueko 10:15ean

Los tres entierros de Melquiades Estrada

Zuzendaria: Tommy Lee Jones

Aktoreak: Tommy Lee Jones, Barry Pepper



Texas hegoaldea, Mexiko iparraldeko mugan. Etorkizun oparoago baten bila muga pasatzera behartuta egon den etorkin mexikar baten gorpua basamortuan agertzen da. Presaka lurperatu dute eraila izan ondoren, eta bertako agintariak hilerrian hobiratzea erabakitzen dute, hilketaren inguruko ikerketarik egin gabe.

Pete Perkins lurraldeko langileburua bere agindupean izan duen Melquiadesen lagun mina izatera iritsi da urteen igarotzeaz eta ezin du onartu hildakoaren jatorrian oinarritzen den utzikeria hori. Bere kabuz ikertzea erabakitzen du, hiltzailea aurkitu eta lagunaren gorpua Eldorado jaioterrira eramatera behartzeko.

Guillermo Arriagak (Amores perros eta 21 gramos arrakastatsuen gidoilariak) idatzitako lanean oinarrituz, ikuspuntu desberdinak azaltzeko iragana, oraina eta etorkizuna tartekatzen dituen film hau Tommy Lee Jones-en lehen luzemetraia da zuzendari moduan. Texarra izanik ongi ezagutzen duen lurraldean kokatu du istorioa. Legez kanpoko etorkinen gizatasuna eta teorikoki oparoagoa izan beharko lukeen gizarte baten jarrera atzerakoiak aurrez aurre jartzen ditu, kultura desberdinen elkarbizitzan sortzen den talka azalduz.

Aktore eta gidoi onenaren sariak jaso zituen pelikulak 2005eko Cannesko zinemaldian.

dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

IKASTAROA

Ikasturtean zehar matrikula zabalik.
Informazioa: 943 861056

Bi arri: eskulanak, Tiffany, Patchwork eta josteko lan txikiak.

Pintura tailerra: astelehenetik ostegunera Forondan.

Yoga: astearte eta ostegunetan.
18:30ean.

KZ Gunea: ikastaro eta mintegiak 943 86 28 66

DEIALDIAK

VIII. Erakusleihu lehiaketa

Herriko dendarri eta tabernari guztientzat. Izen ematea: Foronda Kultur Etxean (943 861056) eta Turismo Bulegoan (943 14 33 96), abenduaren 10a bitartean. Dendetako leihoak gutxienez abenduaren 11tik 30era bitartean prest.

BERTSOPAPER LEHIAKETA

Joanito Dorronsoro IX. Saria. Epea: abenduaren 27a. Gaia: Zumaia eta Kirola.

IRTEERA MUSIKALA

Abenduaren 15ean, Kursaalera:

Gabonetako Gospel Kontzertuen barne, "The Golden Gate Quartet" taldea. Sarrerak Forondan salgai. 943 86 10 56. foronda@zumaia.net

IRTEERAK

Goizean goiz abiatuta, Topaseko espelxera (Salamanca) MARTXA. Autobuserako izen ematea Inpernupen. Epea: abenduak 24)

...ETA IBILI MUNDUAN 2006

Abenduaren 11, 13 eta 15ean, Baleike Kultur Elkarteak antolatuta, bidaiari buruzko zikloa. 19:00etan, Forondan.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 15etik 17ra, Alondegian, "Bidezko merkataritza azoka".
Abenduaren 27tik urtarrilaren 6ra, Punto Smock ikastaroko lanak

GAZTETXOLA ABENDUAN

Abenduak 23: zine forum saioa.
Abenduak 29: Bilboko PINera irteera.
Abenduak 23: Mendi Irteera: Zarautz, Askizu, Zumaia.
Abenduaren 30a: "Hurrengo urterarte" festa

ABENDUA

Osteguna, 14:

22:15ean, Aita Marin, zine forum saioa: "Sud-express".

Ostirala, 15

22:00etan, Aita Marin, antzerkia, "Nasdrovia Chekov"

22:00etan, Amnistiaren aldeko MUS TXAPELKETA, Metro Tabernan.

Igandea, 17

12:00etan, Aita Marin "Haurrentzat GOLDEN"

17:00etan, Maria eta Jose ikastetxeko Gabonetako Jaialdia. Ikastetxeko aretoa. Ikasle eta irakasleek prestatutako abesti, dantza eta antzezen emanaldiak.

Asteazkena, 20

17:30ean, haur liburategian, ipuin kontaketa saioa, Lupe lekuonaren eskutik. 5 urtetik 8 urterako haurrentzat.

Igandea, 24

Eguerdia bitartean, "Niño Jesusen Eskian".

15:30ean, Gabon Koruaren saioa kalez-kale.

16:00etan, Kantuz Kantu Euskal Presoen Aldeko Olentzeroa, Kofraitik abiatuta.

18:00etan, Beheko plazan, Gabon Abestiari lehiaketa.

18:30ean, Jaiotza ikuskizuna Eusebio Gurrutxaga plazan.

Astelehena, 25

12:30ean, Udal Musika Bandaren Eguberri Kontzertua.

Osteguna, 28

11:00etan, hasita, Gabonetako Haur Parkea, pilotalekuan.

22:15ean, Aita Marin, zine forum saioa: "Los tres entierros de Melquiades Estrada".

Ostirala, 29

19:00etan, Bertso-poteoa, Tomas tabernatik hasita. Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio.

19:30ean, Azken Ostiraletako Elkarretaratzea presoen alde, zubi txikian.

22:00etan, Aita Marin, antzerkia "Meando fuera de tiesto".

Larunbata, 30

16:00etan, Alondegian, Txinparta taldearen esku, Haur Plastikak Tailerra.

22:00etan, Aita Marin, Gabonetako Bertso Saioa.

Igandea, 31

18:00etan, Euskal Presoak Euskal



Herrira Manifestazioa, Beheko Plazatik abiatuta.

URTARRILA

Osteguna, 4

18:30ean, Errege Magoentzako eskulitzak jasotzea.

Ostirala, 5

18:00etan hasita, Errege Zamalkada

Osteguna, 11

22:15ean, zine forum saioa: "C.R.A.Z.Y".

Ostirala, 19

22:00etan, Aita Marin, "El vendedor del tiempo". Ados teatroa.

ZALLA

Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9

TEL: 943 86 10 21

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

LEIZE

taberna

Juan Belmonte, 6

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083



emaiezu beste aukera bat

Deituz gero, zure etxera joango gara bolumen handiko hondakinak jasotzera. Horrela, hondakinak desmuntatuko ditugu berriz erabili ahal izateko eta gure zabortegetian pilatzen diren zaborren kopurua murrizteko.

bolumen handikoan "etxez etxeko" bilketa

Prebentzioari aukera bat emateko, nahikoa da dei bat egitea:

902 54 06 54

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA



aurrea hartuz, aurrera

www.gipuzkoa.net



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

943 36 75 34

UROLA ERDIALDEKO Z. MANKOM.



Urola Erdialdeko Z. Mankom
Urola Erdialdeko Z. Mankom
Urola Erdialdeko Z. Mankom



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak